

# Oi Jüstizia injüstua, igorri naizü herriti

**JOXE AZURMENDI**

IDAZLEA

**E**statuaren biolentzia legitimatzeko arrazoi posible bakarra —Estatuaren aurkako biolentzia legitimatzen duen bakarra bezalaxe—, hori une batean ezinbestekoa juzgatzea da, oro har bezala kasu konkretu bakoitzean. Hala ulertu ohi da behintzat mendebalean ohiko moral eta zuzenbidean.

Bestela, absolutuki onestea edo gaitzestea biolentzia, oso zaila da rasionalki. Inposiblea ez esateko.

Estatuaren biolentzia gaitzenetako bat kartzela da. Ezinbestekoa denean bakarrik dago legitimatua. Ezinbestekoa ez bada, boterearen abusadio bat da.

Iñaki Uriari askatasuna eskaini diote, eta beti ere kartzelan jarraitzen badu, kartzelan daukana, ez da justizia: jueza da. Hobeto esanda, azken aldian loratu den juez tipo bat.

Norbait, edozergatik dela ere, atxilotu eta kartzelan sartua izan bada auzipetzeko, eta prozedura bitartean justiziak erabakitzen badu, behin-behineko askatasuna merezi duela, eta, beraz, askatasuna zor zaiola —berdin dio bermepan ala gabe—, horrek esan gura du, ez dagoela jada arrazoirik presondegian jarraiarazteko, eta andre-gizon horrek etxetik eta lagunetatik urrun segitu behar izateko ez dagoela justifikaziorik justiziaren begitan (ezinbestekotasuna).

Gero, haatik, ordaindu ezinezko bermea galdatzen bazaio kartzelatik ateratzeko, presoari de fakto garbi-garbi esaten zaiona

da: egia da, ez dela ezinbestekoa justiziaren arabera zuk kartzelan jarraitzea; eta, ondorioz, justiziazko arrazoiaren arauz kalean egotea dagokizula. Baina —truko legal simple bategaz— nik orain zu ekonomiazko kateekin lotuko zaitut preso. Kartzelan jarraitu beharrak ez dauka ja justiziarekin zerikusirik, ogasunaren kontu bihurtu da.

Posible ote da justiziaren eta presoaren holako burlarik? Bai, posible da. Hori eta okerragoak dira posible (torturak, adibidez), eta instituzionalizatua dago. Jueza-ren esku, justizia ez ezik, arbitrariedade ere bai baitago, mendebalean ohiko tradizioan Pilatosen historiarekin sinbolizatzen dugunez. Pilatos ez da antigoaleko anekdota bat: Zuzenbideko Estatuaren instituzio modu bat da, hori bizi-bizirik dugu gaur ere.

Iñaki Uriak euskararen militantea da; beraz, pobrea. Aberatsagoa izanik ere, burla bat da, galdatzen dioten 600.000 euroko bermea. Zein den egiaz, bere lagunei baino areago, Iñaki Uriari ematen ari zaion tratua azkeneko arrazoia, itsukeria, mendeku gosea, estupidotasuna, paranoia, oportunismo politikoa, zaila da asmatzen. Justizia injüstua zen, edonola ere, Iñaki Uriak etxetik eraman zuena. Eta justizia in-

justuak dauka setatsu kartzelan, kartzelan luzarazteko, ez dauzkan arrazoiak, umiliazio eta torturaz fabrikatzen diharduen bitartean.

Zer egin? Ez dakigu, ezin dugu ezer. Iñakik berak ez dio utzi, beti izan den analista zorrotza izateari, kartzelan ere; eta, sentimentu pertsonalen gainetik, behin eta berriro arazoaren gakora jotzen du bere adierazpenetan: «arazoa ez da bakarrik ni kale-ratzea», azpimarratu digu, azpimarratzen die batez ere eragile sozialei eta politikariei, horiek dute erantzukizuna herri honen instituzioentzat.

Injustiziaren aurka, haserreak edo kupidak ez du ezer konpontzen. Sentimentuak ongi daude, ez dira aski. Bere esperientzia mingotsak eta utopia bat buruan argi edukitzeak ematen dioten errealismoarekin, «gauza bat ziurra da, salatzen du Iñaki Uriak: lege eta auzitegi berezi hauekin, eta marko osoarekin azken finean, euskalgintzak eta abertzaletasunak ez daukate babes posiblerik». Euskararen herria arrotz eta etsaien menpetzan bizi da. Egiazko arazoa menpegabetasuna lortzea da. Bukatu betiko historia bat, eta historia berria hasi. «Babesa eskuratzeko modu bakarra Justizia Sistema Beregaina lortzea litzateke. Beregaina, propioa eta euskalduna» (BERRIA 04-05-27). Gorteko kapritxoetatik libre, behin eta betiko. Uriak badaki, zer esaten duen eta zergatik.

(Bakarrik, justiziazkoa da eta ez da inportantzia gabekoa, lagunak, Alderdiak, Legebiltzarra, Jaurilaritza, denok ahalegitea hori ere lehenbailehen lortzen: barrutik esaten duena, esan diezagula bera kanpoan egonez).

**Iñaki Uriari askatasuna eskaini diote, eta beti ere kartzelan jarraitzen badu, kartzelan daukana ez da justizia: jueza da**